

Avenida Reina Sofía, 100
01015 Vitoria-Gasteiz
Tlf. 945 357 578
asociacion@spacealava.org
www.spacealava.org



lo que este mundo necesita es gente diferente
mundu honek behar duena jende ezberdina da



as
pa
ce

asociación
parálisis
cerebral



álava

Nor gara?

Garun-paralisiaren eta antzeko nahasmenduen **ASPACE-ÁLAVA** elkarteak **1989**an sortu zen, familia talde bat eskubideen eta beharren defentsagatik sentsibilizatuta.

Misioa

Garun-paralisia eta antzeko nahasmenduak pairatzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, gizarteratzen erraztea helburu, eragindako pertsonen bizi-ziklo osoan familiei laguntza emanez.

Ikuspegia

Garun-paralisan eta antzeko nahasmenduetan Arabako gizartean erreferente izatea, herritarren, profesionalen, heziketa eta osasun erakundeen artean, besteak beste. Horretarako gure ustez ezinbestekoa da garun-paralisiaren gaineko irudi bat proiektatzea, sentsibilizatzea, zabaltzea eta komunikatzea, baita beste erakunde batzuen arreta ego-kia izatea ere.

Zer da garun-paralisia?

Garun-paralisia terminoa izendapen orokor moduan erabiltzen da hainbat nahasmendu neuromotor adierazteko.

Garun-paralisia entzefalon izandako kalte baten ondorioa da. Lesio hori gertatzen da nerbio-sistema garatzen ari denean eta tonu-muskuluan, jarreran eta mugimenduan sortzen dituen kalteek umeen garapena oztopatu egiten dute.

Definizio hau abiapuntu, honakoak ulertu ahal ditugu: kalte iraunkorra da; hainbat jatorri izan dezake; kasu guztietan haurdunaldian, erditzean edo bizitzaren hasierako urteetan gertatutako arazoa da; batez ere mugikortasunean eragiten du, nahiz eta berarekin zerikusia duten beste nahasmendu batzuk ager daitezkeen.

Zer dira antzeko nahasmenduak?

Garun-paralisiaren antzeko nahasmenduak honela azal ditzakegu: garunean kaltea izan delako proba diagnostikorik izan gabe, klinikoki zailtasun handiak ageri dira plano motorrean.

Zer egiten dugu?

INFORMAZIOA ETA ORIENTABIDEAK

INFORMAZIO OROKORRA

GIZARTE LANA

LAGUNTZA ETA GAIKUNTZA

LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

FISIOTERAPIA ETA ESTIMULAZIOA

AHOLKULARITZA ETA AUTONOMIAREN SUSTAPENA

ATSEDENA ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA

IKASTURTEKO PROGRAMA

Aisialdi eta lehiaketa kirolean laguntzea

Aisialdiko jarduerak

UDAKO PROGRAMA

Udaleku irekia eta zentzumen askotariko txokoa

Gazte eta helduentzako atsedena

ELKARTE ARLOA

ELKARTZE ZERBITZUAK

BOLUNTARIOENTZAKO PROGRAMA